

I - JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA Y ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Diputación Foral de Álava

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

188/2018 Foru Agindua, martxoaren 13koa. Honen bidez, Javier Orive Landa atxikitzea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren buruaren lanpostuari, zeinak 1013.001 kodea baitu, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzakoa baita

Abenduaren 27ko 471/2017 Foru Aginduaren bidez deialdia egin zen izendapen askearen sistemaren bidez betetzeko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren buruaren lanpostua, 1013.001 kodeduna, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzakoa.

Eskabideak egiteko epea amaitu eta haiek aztertu ondoren, deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendariak, espedientean jasota dagoen txosten arrazoitu batean Javier Orive Landa proposatu zuen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren buru izateko.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundia-
ren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Javier Orive Landa atxikitzea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren buruaren lanpostuari, zeinak 1013.001 kodea baitu, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzakoa baita.

Bigarrena. Foru agindu honek 2018ko martxoaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 13a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR